

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Behin betiko onestea ondasunen inbentarioa

Arrietako Kontzejuak, 2019ko abenduaren 5eko bilkura irekian, hau erabaki zuen:

**LEHENENGOA-** Baiestea Arrietako Santa Magdalena parrokiak aurkeztutako alegazioa, eta Arrietako Administrazio Batzarraren ondasunen inbentariotik kentzea 3 zenbakiko fitxa, 27-1-43-0-1-1 katastro erreferentzia daukan Hilerri Zaharrari dagokiona, Geograma SLk egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta.

**BIGARRENA-** Alegazioen inguruan hartutako erabakia alegazio egileari jakinaraztea eta lehenengo erabakian aipatutako txosten tekniko-juridikoa bidaltzea.

**HIRUGARRENA-** Behin betiko onestea Arrietako toki erakunde txikiko ondasun eta eskubi-deen inbentarioa, egin den bezalaxe eta Geograma SLk egindako txosten tekniko-juridikoaren arabera.

**LAUGARRENA-** Erabaki hau kontzejuaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Administrazioarekiko auzietara jo aurretik, berorren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arrieta, 2019ko abenduaren 26a

*Lehendakaria*

**AITOR ÁLVARO RUIZ DE EGUILAZ**